

*Iñigo Urkullu lehendakaria eta Isabel Celaa Hezkuntza ministroa  
gonbidatu nagusien artean Bilbon egindako ekitaldian*

## **50. URTEURRENA OSPATU DU EROSKI K ERAKUNDE, EKONOMIA ETA GIZARTE SAREKO ORDEZKARITZA ZABALAREN BABESEAN**

- Kontsumitzaileengandik hurbil izateak, gero eta kontsumo arduratsu eta iraunkorragoak, berrikuntzak eta etengabeko egokitzapenak finkatuko dituzte hurrengo desfioetarako oinarriak.
- Gizartean sustraitzea eta balore sozialak nabarmendu izan ditu EROSKI k, bai eta kontsumitzaileen beharretara egokitzeko haiekin bat egiteko lehentasuna ere.
- Agustin Markaide lehendakariak gogorarazi duenez, pertsonen arteko lankidetzaproiektua da EROSKI k, haren barne-indarrak eta gizarteari ekarpenak egiteko ahalmenak bereizten duena.

Elorrio, 2019ko martxoak 12.- [EROSKI](#) k bere 50. urteurrena ospatzeko urte osoan zehar egingo diren ekitaldiei eman die hasiera gaur arratsaldean. Ekitaldia Bilboko Azkuna Zentroko auditorioan izan da, EROSKIko ordezkarienez gain, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Isabel Celaa Espainiako Gobernuako Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministro bozeramailea partaide zirela. Bere mende Erdiko ospakizunean, erakunde, ekonomia eta gizarte sareko 400 lagun baino gehiagoko ordezkariak oparoak babestu du EROSKI.

Ekitaldian, EROSKIko lehendakari Agustin Markaidek eskerrak eman dizkie "*bertan direnei eta ez direnei, emandako laguntzagatik, gaur ez ezik, baita 50 urte hauetan ere*". Jatorrietara jo du, kontsumo-kooperatiba txiki batzuek batzearen emaitza gogoratuz. Azaldu duenez, sorrera "*eguneroko behar oinarritzko batzuei emandako erantzun soziala eta kolektiboa izan zen. Behar horiek hobeto asetzeko giza gaitasunean eta lankidetzan sinesten zuten sustatzaileek. EROSKI berritzailea izan zen ordurako, zazpi kooperatiba haiek elkartzen zituena bereizten zituena baino gehiago nabarmenduz, eta berritzailea izan zen langileak bazkide gisa txertatzen ere*".

Denboraren joanean, bazkide kontsumitzaileei lotuta jarraitu du EROSKI k, gizartea eboluzionatzen ari zen heinean haien beharrei erantzunak eskaini ahal izateko. Bilakaera horretan zehar, leial eutsi izan die haren sustraiei eta lankidetzako jatorriari; Markaideren esanetan, horixe izan du berme-gune bere eginkizuna

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

eguneratzeko garaian: *"herritarren osasuna eta ongizatea hobetzea, gero eta kontsumo arduratsu eta iraunkorrarekin era bateragarrian josita"*.

EROSKIko lehendakariak, halaber, dagokion balioa eman dio *"gizarte-sustraiak eta balioak mantenduz, EROSKI bost hamarkada betetzera eraman duten lagun guztien ahaleginari. Lankidetzaren proiektua indartu duen ahalegina izan da, etorkizunean guretzat leku bat lortzeko"*; horretarako eragile izango dira hurbil izatea, gero eta kontsumo arduratsuago eta iraunkorragoa, berrikuntza eta etengabeko egokitzapena. *"Bere proiektuarekin gizartea eraldatzeko ekimena hartzea dagokio EROSKIri, bazkideen eta elkartearen ongizate iraunkorraren bila, eta horretarako, behar hainbat alditan eraberrituko gara"*, adierazi du Markaidek amaitzeko.

EROSKIko Kontseilu Errektoreko presidente Leire Mugerza Garatek esan duenez, *"EROSKIko asmo handiko bazkide-enpresa proiektua dela egiaztatu du, kooperazio-kudeaketa eredu berezia historiaren eboluziora egokitzen jakinda, baina beti gure izatearen arrazoiak aurkitzen ditugun erroetara itzuliz"*. Gogora ekarri du EROSKIren oinarriak zein diren: ekitatea, harremanak humanizatzea eta *"eskubideetan zuzenagoa eta aukeretan berdinzaleagoa izango den gizarte baterako etengabe lan egiteko helburua"*.

Mugerzak nabarmendu duenez, *"ospakizun hau merezi duten pertsonen proiektua da EROSKI. Horiek dira bai azken 50 urte hauetan izan garenaren balioa, eta bai hurrengo berrogeita hamarretan izango garenaren balioa ere"*.

## **EROSKIri buruz**

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.652 saltokiko sare komertziala du. Hainbat saltoki motaren artean, supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak ditu; horiez gain, baita gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 kooperatiba-bazkide nahiz langile-bazkide ditu.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)